

BASAURI

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022



Basaurin , 2018ko maiatzean

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	ABIAPUNTUA	3
3	METODOLOGIA	5
4	OINARRIZKO AZTERKETA	6
4.1	Euskara gaitasuna eta kale erabileraren bilakaera	6
	• Gaitasunak nabarmen egin du gora	6
	• Erabileran zailtasunak euskararen presentzia handitzeko	6
4.2	Balorazio kualitatiboa esparruka	7
5	PLAN ESTRATEGIKOA (2018-2022)	12
5.1	HELBURU ESTRATEGIKOAK ESPARRUZ ESPARRU	12
	EUSKARAREN JABEKUNTZA	13
	EUSKARAREN ERABILERA	17
6	AGINTE PANELA	22
7	PLANAREN EGITURA ETA JARRAIPENA	32
8	ERANSKINAK	34

1 SARRERA

Basauriko Udalak herritarren eta hainbat eragileren aldetik euskararen norabide partekatu baten beharra sumatuta, 2018-2022 epealdirako Basauriko Herriaren Euskararen Plan Estrategikoa egitea erabaki du. Plan estrategikoko hori zehazteko eta 2014-2017 planaren ebaluazioa egiteko herritarren partaidetza bidezko prozesua burutu da.

Dokumentu honetan jasota dagoen plan estrategikoa partaidetza prozesu horren eta Basauriko Udaleko Euskara Aholku Batzordea osatzen duten kideen ekarpenekin egin da. Horrela, 2018-2002 epealdirako oinarri estrategikoak definitu dira, eta esparrukako neurriak eta ekintzak ere jaso dira.

Horrelako plan bat aurrera eramateko eta jarritako helburuak erdiesteko, inondik inora Udalak duen ardura alde batera laga gabe, ezinbestekoa da Basauriko herria osatzen duten herritarrek, elkarteek eta erakundeek konpromiso sendoa hartzea eta planaren jarraipenean parte hartzea.

Basauriko Udalak euskarak herrian duen presentzia eta erabilera handitu nahi du, gero eta handiagoa baita euskararen ezagutzaren eta erabileran artean dagoen aldea; azken urteetan nabarmen egin du gora euskaraz dakiten basauriarren kopuruak baina euskara egunerokoan darabiltenen kopuruak oso baxua izaten jarraitzen du.

Euskarak Basaurin duen presentzia eta erabilera handitzeko, lehenasunezko zat jo dira familia transmisioa, irakaskuntza, aisialdia eta kulturegintza, kirola, euskalduntze-alfabetatzea eta arlo sozio-ekonomikoa, eta datozen 5 urteetan esparru horietan eragiteko ahalegin berezia egingo da.

2 ABIAPUNTUA

Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (hemendik aurrera ESEP) diseinatu zuen eta 2013an Legebiltzarrak onartu. ESEPe datozen hamar urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri proposamenak jasotzen ditu, eta Basauriko Udalak ESEP txostena izan du gidalerro nagusi udalerrri mailako plan estrategikoa definitzeko.

Basauriko Udalak 2018-2022 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua abiatu du; prozesu horren baitan, euskarak Basaurin bizi duen egoeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin ondoren, plana diseinatu da. Horretarako, ezinbestekoa izan da herriko eragileen parte-hartzea, eta EMUN Hizkuntza Zerbitzuaren eta Basauriko Udaleko Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlana.

Aurkezten dugun txostena, prozesu horren emaitza da. Txostenak ondorengo atalak jasotzen ditu:

- Prozesuaren azalpenak: metodologia

- Oinarrizko azterketa
- 2018-2022 epealdiko plan estrategikoa
- Planaren egitura eta jarraipena
- Eranskinak

3 METODOLOGIA

Plangintza estrategikoa diseinatzeko prozesuak hiru fase nagusi hauek izan ditu:

1. LEHEN FASEA: OINARRIZKO AZTERKETA

Analisi kuantitatiboa 2014-2017 planaren azterketa egiteko. Azterketa hori Euskara Zerbitzuak egin du EMUN hizkuntza zerbitzuarekin batera, eta azterketa hori izan da diseinuaren abiapuntua.

2. BIGARREN FASEA: PARTE HARTZE PROZESUA

Parte hartze prozesuaren bidez herritarren eta eragileen arteko hausnarketa estrategikoa bideratu dugu. Parte hartzeak bi helburu izan ditu:

- a. Azken lau urteetan egindakoaren balorazioa egitea.
- b. Etorkizuneko irudikapena egitea, eta etorkizunerako helburu eta ekintzak lantzea.

Hausnarketa estrategikoa izan da prozesu honen muina, eta bertan esparruetako hainbat eragile, herritar eta arduradun elkarrekin bildu dira gune bakar batean. Guztira bi saio izan dira.

Parte hartze prozesua landu bitartean, parte hartzaileek aukera izan dute saioetan landutako gaien inguruko ekarpenak egiteko.

3. HIRUGARREN FASEA: PLANAREN DEFINIZIOA

Oinarrizko azterketa eta parte hartze prozesuan bildutako informazioa oinarri hartuta, plan estrategikoa definitu dugu.

Plan estrategikoak ondorengo atalak ditu bere baitan:

- Oinarri estrategikoak
- Helburuak esparruz esparru
- Adierazleak: helburu bakoitza zehaztean ebaluaziorako erabili beharreko adierazlea(k). Helburuen betetze mailaren berri emango diguten adierazleak
- Planaren jarraipena

4 OINARRIZKO AZTERKETA

2014-2017ko planaren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jaso ditugu lehenik eta behin. Oinarrizko datu horiek parte-hartze prozesuan partaide guztien eskura jarri dira.

Azterketa atal hauetan egituratu da:

- Azterketa kuantitatiboa:
 - Biztanleria.
 - Euskara gaitasuna eta kale erabilera.
- Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru. Esparru bakoitzeko ekintza nagusi eta esanguratsuenak bildu dira eta horien sintesia jaso dugu txostenean. Ondorengo esparruak landu dira bileretan:
 1. Familia transmisioa.
 2. Irakaskuntza.
 3. Euskalduntzea eta prestakuntza.
 4. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza...).
 5. Aisialdia (kulturgintza).
 6. Kirola.
 7. Gazteak: esparru hau berariaz lantzea aurreikusita ez genuen arren, parte hartze saioetan lehentasunezkoztat jo dute zenbait kidek, eta esparru horren lanketa egin dute.

4.1 Euskara gaitasuna eta kale erabileraren bilakaera

- **Gaitasunak nabarmen egin du gora**

Eustateko datuen arabera, Basauriko elebidunen kopuruak azken 30 urteetan nabarmen egin du gora.

1986 %6,5	2011 %23,2	2016 %28,20
----------------------------	-----------------------------	------------------------------

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Erdaldunenak, berriz, behera egin du 28 puntutan. Adin tarte baxuenetan (2-14 eta 15-35 adin tarteetan) egin du gehien gora euskal hiztunen portzentajeak.

- **Erabileran zailtasunak euskararen presentzia handitzeko**

Basauriko euskararen kale erabileran ez da aldaketa nabarmenik izan azken urteetan.

2001 %2,2	2011 %4
----------------------------	--------------------------

Iturria: Soziolinguistika klusterra

Gazteek egiten dute euskaraz gehien, %7,4; haurren erabilera %5,4 inguruan dago, eta helduena %3,3an.

4.2 Balorazio kualitatiboa esparruka

2014-2017ko planaren eta egungo egoeraren balorazio orokorra jaso dugu, esparruz esparru.

1. ESPARRUA: FAMILIA TRANSMISIOA

Egungo egoera (2016ko datuak)

Etxeko erabilera: %2,9 euskaraz - %6,6 euskaraz eta gaztelaniaz
Joera-> berdintsua azken 25 urteetan (1991-2011); etxeko euskararen erabilera datua zerbait igo da baina ez ezagutzak gora egin duen proportzioan

Transmisioa ziurtatu eta familia giroko erabileran eragiteko ekintza ugari garatzen dira:

- Gurasoen sensibilizazioari eta motibazioari lotutako ekimenak: gutuna, webgunea, materiala (eskuliburuak, gidak, jaioberrientzako bildumak...).
- Ekintza konpartituak, programak eta tailerrak garatu (*Irakurketa kluba, Azalerako ipuinak, Olgetan ondo pasau...*).
- Informazioa eta aholkularitza eskaini (Beharsarea, Eskolaz kanpo eta aisialdian euskaraz GIDA,...)

Ahaleginak ahalegin, familia giroan euskarak oso gutxi egin du gora, eta gaztelania da basauriar gehienetxe hizkuntza.

Hori horrela izateko arrazoen artean honakoak identifikatu dira: guraso gazte askok euskara jakin arren euskaraz hitz egiteko trebetasun nahikorik ez izatea; haur eta gazteen euskalduntzearen ardura eskolaren esku uztea (eskolak euskaldunduko duelako ustea); aisialdian oraindik ere gaztelania nagusi izatea; eta herrian gaztelaniak duen presentzia nagusi izatea.

Azken urteetan egin diren sensibilizazio eta kontzientziazio ekintzak egiten jarraitzeko beharra ikusi da (materiala banatu, kanpainak...), baina horrez gain, familiei euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzeko beharra azpimarratu da, horretarako beharrezko guneak sortuz eta ekintzak antolatuz.

Bestetik, gurasoen euskara gaitasuna (jariotasuna) handitzeko euskaltegiekin elkarlanean aritzeko beharra eta *Gurasolagun* bezalako programak martxan jartzeko beharra aipatu dira.

Etorkizuneko erronkak

Familia euskaldunak biltzeko sarea osatzea eta bistaratzea.

Guraso euskaldunen euskara gaitasuna handitzea (bereziki jariotasuna lantzeko), euskaltegiekin elkarlanean jardunez eta *Gurasolagun* erako programak martxan jarrita.

Gurasoak familiak eta ingurune hurbilak haurren euskalduntzean duen garrantziaz jabetzea.

2. ESPARRUA: IRAKASKUNTZA

Egungo egoera

D ereduko matrikulazio datuak (2016/2017 ikasturtea)

Haur Hezkuntza	D %81,43	DBHn	D	Lanbide Heziketa	D
		%79,31		%7,02	
Lehen Hezkuntza	D %81,93	Batxilergoa	D %83		

Joera. D eredu nagusitzen, eta A eredu desagertzen (HHn eta LHn ez dago A eredurik).

Haur eta Derrigorrezko hezkuntza D eredu nagusi da, eta A eredu desagertuta dago HH eta LHko mailetan. Adinean gora egin ahala, ordea, eredu mistoak (B) eta erdarazko ereduak (A) gutxiengo izaten jarraitu arren, toki handiagoa hartzen doaz. Lanbide heziketan A eredu nagusi da (%91). Hizkuntza eredu garrantzia kontuan hartuta, udalak euskarazko ereduaren abantailak azaltzeko informazioa eta eskuliburuak zabaltzen ditu (*D bitamina, Nahi dudalako*).

D eredu nagusi izan arren, ikasle askok gaztelaniaz hitz egiteko joera dute eta ez dute euskaraz erositasunez hitz egiteko behar besteko mailarik; hori dela eta, udalak ahozko lantzeko zenbait programa martxan ditu ikastetxeetan, *Gu ere bertsoan, Antzerkigintza, eta Ahozko lantzea (irratigintza)*, ikastetxeek horiek indartzeko beharra sumatzen dute. Ahozko lantzeko programak DBHko bigarren ziklora eta Batxilergoko mailetara hedatzea beharrezkoa dela aipatu da.

Etorkizuneko erronkak

Ahozko lantzeko programak indartzea (DBHko bigarren ziklora eta Batxilergoko mailetara zabaltzea)
DBHtik gorako mailetan D ereduaren presentzia handitzea

3. ESPARRUA: EUSKALDUNTZEA-ALFABETATZEA

Egungo egoera

Euskara ikasten 2016/2017an: 500 basauriar inguru euskara ikasten Basauriko euskaltegien (AEKn eta Udal euskaltegian) eta 212 Hizkuntza Eskola Ofizialean; *Berbalaguna* egitasmoan 70 lagunetik gora

Euskara Zerbitzuak diru baliabideak jartzen ditu euskalduntzen laguntzeko.

Euskaltegiek (Udal Euskaltegia eta AEK) ohiko eskaintzaz gain, hartzaileen beharretara egokitutako eskaintza zabala dute: merkatarienezako, enpresetako langileentzako, gurasoentzako, etorkinentzako... Azken urteotan, ordea, oso talde espezifiko gutxi sortu dira.. Datozen urteetan ere beharrezko bereziei lotutako ikastaroak antolatzen jarraitzeko beharra ikusi da, eta ESEPeke arlo bakoitzean euskaltegiek eragiteko bidea aurkitzeko beharra.

Berbalaguna egitasmoan 70 lagunetik gora dabilta, euskaltegi eta kaleko erabileraren arteko zubi lana egiteko, eta ekimen honekin jarraitzeko eta indartzeko beharra ikusi da.

Horiez gain, doakotasunaren bidean urrats sendoak eman behar direla esan da.

Etorkizuneko erronkak

Euskara ikasten ari direnak euren eguneroko bizitzan euskara erabiltzea (euskaltegien dagoen)

potentziala kalera ateratzea)

Doakotasunerako bidean diru-laguntzak handitzea, dirua oztopo izan ez dadin euskara ikasteko orduan. ESEPeke esparruetan eragiteko esparruei bideratutako taldeak sortzea: gurasoak, kirol entrenatzaileak, enpresak...

4. ESPARRUA: AISIA (AISIALDI ETA KULTUR ESKAINTZA)

Egungo egoera

Euskarazko aisialdi eta ikasketa osagarrien gidaren zabalkundea egiten da: aisialdia, kirola, akademia... Udalak, haur eta gaztetxoei zuzentzen dien aisialdi eskaintzan euskararen presentzia nahiko handia da: ludotekak, udalekuak, multiabentura...

Social Antzokian euskarazko eskaintza handituz doa, baina oraindik ere gaztelaniazkoa da nagusi.

Hezitzaileentzako ikastaroak antolatzen dira.

Hizkuntza irizpideak ezarrita daude diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarteentzat eta herriko instalazioak erabiltzen dituzten elkarteentzat.

Herriko elkarteekin konpromisoak hartzen hasi dira euskararen erabilera handitzeko, eta laguntza teknikoa eta aholkularitza eskaintzen zaie.

Oro har, udalak antolatzen duen aisialdiko euskarazko eskaintza handituz doa, bereziki haur eta gaztetxoen esparruan, baina oraindik ere gaztelania da nagusi Basauriko aisialdi esparruan, bereziki helduen esparruan.

Horrez gain, herriko elkarteek euskaraz egiteko borondatea erakusten badute ere, errealitatean gaztelaniaz garatzen dira jarduerak, besteren artean, askotan jardueretan parte hartzen duten begiraleak “euskaldunak” izan arren gaztelaniaz egiteko joera dutelako.

Etorkizuneko erronkak

Haur eta nerabeentzako aisialdi eskaintza %100 euskaraz izatea.

Euskara plazaratzea; euskarazko kultur eta aisialdi ekitaldiak areto “itxietatik” herriko kaleetara ateratzea.

5. ESPARRUA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA (MERKATARITZA, ENPRESAK)

Egungo egoera

[BAI EUSKARARI](#) ziurtagiria Basauriko 9 erakundek daukate: [Mutualia](#), [Elkar](#), [Ariz consultores](#), [Haltzaleku](#), [Tximintxe](#), [Nervion](#), [Expenduria 7](#), eta [Bolintxu euskaltegia](#).
[Ez dago BIKAIN](#) ziurtagiria duen enpresarik

2005ean *Eidazu euskeraz* ekimena martxan jarri zen euskararen erabilera merkataritza esparrura hedatzeko, euskararen erabilera bultzatzeko prest zeuden merkatariekin hitzarmenak sinatuta (2012an denden %56,42k sinatuta zeukaten hitzarmena). Hitzarmengintzaren atala bertan gelditu zen, eta gaur egun, Udalak diru-laguntzak, doako itzulpen zerbitzua eta laguntza teknikoa eskaintzen die herriko merkatariei irudi korporatiboa euskaldundu dezaten.

Horrez gain, 2014an herriko enpresei euskara plana abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak dituen diru-laguntzen berri eman zitzaion baina ez zuen arrakastarik izan.

Merkatariekin lanean jarraitzeko beharra azpimarratu da, *Eidazu euskeraz* proiektua indartuta (hitzarmengintzaren bidea lehenestea hobesten da). Horrez gain, euskaltegiekin elkarlanean, merkatariei zuzendutako ikastaroak antolatzeko beharra ere aipatu da.

Enpresei dagokionez, enpresak euskara planak martxan jartzeko animatu behar direla uste da, ziurtagirien berri emanez, eta diagnostikoa egiteko aukera emanez.

Etorkizuneko erronkak

Herriko merkataritza esparruan euskararen erabilera eta presentzia handitzea

Basauriko enpresak lan-munduan euskararen erabilera sustatzearen garrantziaz jabetzen hastea, euskara sustatzeko dauden baliabideen berri emanez (ziurtagiriak, diru-laguntzak) eta euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko urratsak ematea.

6. ESPARRUA: KIROLA

Egungo egoera

Erdu euskeregaz egitasmoan parte hartzen duten kirol elkarteak: 33

Basaurin badago haur eta gazteentzako euskarazko kirol eskaintza, esaterako multikirola campusa euskaraz, Udal kiroldegiak antolatzen dituen hainbat kirol ikastaro (patinajea, igeriketa...), baina oraindik ere gaztelania da nagusi esparru honetan, eta askotan kirol entrenatzaileak "euskaldunak" izan arren, gaztelaniaz egiten dute (gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa dutelako, haur eta gaztetxoak ere gaztelaniaz egiteko joera dutelako...). Helduentzako kirol eskaintzan, berriz, gaztelania da jaun eta jabe. Oro har, orain arte egiten denarekin jarraitzeko beharra sumatu da (gidak, *Bizi Kirola euskaraz* ekintza, *Kirol Campusak*...) baina Basauri Kirolak antolatzen dituen ikastaro eta ekintzetan euskarazko eskaintza handitzeko beharra sumatu da.

Hezitzaileek euskaraz egiteko gidak banatzen eta ikastaroak antolatzen hasi dira azken urteetan. Ikastaro hauek indartzea beharrezkoa dela aipatu da, eskaintza zabaltzea eta jende gehiagok parte hartzeko bideak aztertzea.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten, herrian ekitaldiak antolatzen dituzten nahiz herriko instalazioak erabiltzen dituen kirol elkarteentzat nahiz bestelako elkarteentzat hizkuntza irizpideak ezarrita daude. Zentzu honetan aipatu da euskara erabiltzea saritu beharko litzatekeela diru-laguntzetan.

Erdu euskereagaz egitasmoa martxan dago, herriko elkarteetan euskararen erabilera handitzeko egitasmoa. Gaur egun, 33 kirol elkarte hartzen dute parte egitasmoan. Kirol elkarten eta administrazioaren arteko komunikazio bideak sendotzea eta hobetzea beharrezkoa dela esan da.

Euskarazko ikasketa osagarrien, aisialdi eskaintzaren eta kirol eskaintzaren inguruko gida banatzen da.

Etorkizuneko erronkak

Kirol entrenatzaileen euskararekiko kontzientzia eta sentsibilizazio maila handitzea, eta kirol entrenatzaileen euskara gaitasuna hobetzea

7. ESPARRUA: GAZTEAK (16-30)

Egungo egoera

Erabilera: %7,4 (2011ko datua)

Joera: 2001etik 2011ra 6 puntu egin du gora

15-34 urte arteko gazteen %56 euskaldunak, eta %22 ia euskaldunak ziren 2016. urtean (Eustat). Euskara ulertzeko gaitasuna goraka doa urtez urte, esaterako, 2011tik 2016ra 15 puntu egin du gora 15-34 urte arteko euskaldunen portzentajeak. Batxilergoan D eredu nagusi da %83 (2016/2017 ikasturtean). Lanbide heziketan, ordea, gaztelaniazko eredu nagusi da.

Euskararen ezagutza goraka badoa ere, gazte horietako gehienak gaztelaniaz hobeto moldatzen dira, eta zailtasunak dituzte euskaraz naturaltasunez egiteko. Ildo horretan, gazteekin ahozotasuna lantzeko proiektuak indartzeko beharra aipatu da.

Etorkizuneko erronkak

Gazteentzako (12-18 / 19-30) aisialdi eskaintza %100 euskaraz izatea

Gazteen euskara-jarioratasuna hobetzea

5 PLAN ESTRATEGIKOA (2018-2022)

5.1. HELBURU ESTRATEGIKOAK ESPARRUZ ESPARRU

Euskararen Aholku Batzordearen ESEP abiapuntu hartuta, hizkuntza plangintza bi helburu estrategikoren inguruan antolatu da: jabeakuntza eta erabilera. Elikaduraren atala ez da berariaz landu, eta proposamena da orain arte hasitako bideari jarraitzea.

EUSKARAREN JABEKUNTZA

Euskararen jabeakuntzan landu diren esparruak familia transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea izan dira.

EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen erabileran arlo sozio-ekonomikoa, aisia, kirola eta gazteen esparruak landu dira.

Hurrengo orrialdeetan jasotzen diren tauletako osagaiak honako hauek dira:

- a) **Neurria:** esparruari loturiko helburu zehatza islatzen du.
- b) **Ekintza:** dagokion neurria garatzeko proposatzen den egitasmo jakina da.
- c) **Garrantzia:** lehentasunak finkatzeko, proposatzen den garrantziaren araberako sailkapena. Bi dira erabilitako parametroak: ertaina eta handia.
- d) **Eragileak:** zehaztutako neurria betetzeko orduan ardura edota parte-hartzea izango duen erakunde edo eragile publiko zein pribatua da.
- e) **Adierazleak:** planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari begira, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko proposatzen dira adierazleak.

EUSKARAREN JABEKUNTZA

I. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Neurria: Hizkuntza kontzientzia lantzea gurasoekin (ESEP 1.1)

Ekintzak

- a) Kanpainak egin: Alkarbiderekin batera egiten diren sentsibilizazio eta motibazio kanpainak.
- b) Kanpaina bereziak egin etxeko eta eskolaz kanpoko erabileraren garrantzia azpimarratzeko, ikastetxeekin eta guraso elkarteekin elkarlanean.

Eragileak

Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso elkarteak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Kanpaina eta ekimen kopurua.
- b) *Eman giltza* webguneak izandako bisita kopurua
- c) Galdetegietako emaitzak: jasotako galdetegi kopurua + balorazioa

Neurria: Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (ESEP 1.3)

Ekintzak

- a) Euskaraz bizi nahi duten familien sarea osatu eta bistaratu.
- b) Gurasoek eta umeek elkarrekin euskaraz aritzeko programak eta ekintzak indartu: parkeetako egitasmoak, zinea euskaraz, *Azalerako ipuinak, Irakurketa kluba, Olgetan ondo pasau...*

Eragileak

Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak, liburutegiak, AEK (*Gurasolagun*)

Garrantzia

Handia

Adierazleak

Familietako euskara erabileraren bilakaera

- a) Sarean dauden familia kopuruaren bilakaera.
- b) Gurasoentzako eta haurrentzako euskaraz antolatutako ekintza kopuruaren eta partaidetzaren bilakaera.

Neurria: Guraso euskaldunen euskaraz hitz egiteko jarioetasuna hobetzea (ESEP 1.3)

Ekintzak

- a) *Gurasolagun* programa martxan jarri eta indartu.
- b) Guraso euskaldunak euskaraz hitz egiteko jarioetasuna lantzeko ikastaro bereziak antolatu.

Eragileak

Euskara Zerbitzua, euskaltegiak, Guraso elkarteak, ikastetxeak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- d) *Gurasolagun* edo *Berbalagun* egitasmoan parte hartzen duten guraso kopuruaren bilakaera
- e) Ikastaroetako ikasle kopuruaren bilakaera

II. IRAKASKUNTZA

Neurria: D ereduaren eskaintza eta matrikulazioa handitzea, bereziki DBHtik gorako mailetan (ESEP 2.2)

Ekintzak

- a) Euskarazko ereduaren ikastearen abantailak azaltzeko kanpainak egin eta indartu, bereziki DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan (Basauriko pertsona erreferente eta ezagunen gomendioekin mezuak aberastu).

Eragileak

Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) *Nahi dudalako* webguneak izandako bisita kopurua
- b) Galdetegien bidez jasotako balorazioa

Neurria: Ikasleen ahozko hizkuntza-jarduna lantzea euskara jarioetasunez hitz egiteko gaitasuna handitzeko (ESEP 2.3)

Ekintzak

- a) Euskararen ahozko jarioetasuna lantzeko ikastetxeetan burutzen diren proiektuak eta jarduerak indartu eta areagotu (oraingo eskaintza zabaldu - adin talde nagusiagoei- eta berriak sortu).

Eragileak

Ikastetxeak, Euskara Zerbitzua

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Ahozko hizkuntza-jarduna lantzeko proiektu kopuruaren bilakaera (DBHko bigarren zikloa eta Batxilergoa)

Neurria: Euskararen erabilera handitzea ikastetxeen eremuan (ESEP 2.4)

Ekintzak

- a) Ikastetxeetako aisialdi eskaintza aztertu eta eskaintza euskaraz izateko neurriak hartu: zerbitzuaren kontratazioan, barneko langileen euskalduntzea...

Eragileak

Ikastetxeak, Guraso elkarteak, Euskara Zerbitzua, aisialdi taldeak, kultur eta kirol elkarteak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Euskarazko aisialdi eskaintza, eskaintza osoarekiko.

III. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Neurria: Euskara ikastea doakoa izateko urratsak ematea (ESEP 3.2)

Ekintzak

- a) Euskara ikastea doakoa izateko diru-laguntzak indartzea

Eragileak

Euskara Zerbitzua eta Euskaltegiak

Garrantzia

Ertaina

Adierazleak

- a) Euskara ikasteko diru-laguntzen bilakaera

Neurria: Euskaltegien eskaintza ESEPeke helburuak asetzeko beharretara egokitzea (ESEP 3.7)

Ekintzak

- a) ESEPetik sortzen diren beharrian bereziei lortutako ikastaro bereziak eskaini (horretarako,

beharrezkoa izango da euskaltegien eta udalaren arteko elkarlan-gunea sortzea).

Eragileak

Euskaltegiak, Euskara Zerbitzua, ESEPeke esparruetako xede-taldeak: gurasoak, elkarteetako hezitzaileak, merkatariak, enpresetako langileak...

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Beharrian bereziei erantzuteko sortutako ikastaro kopurua
- b) Ikastaroetako partaide kopurua

Neurria: Euskaltegiko ikasleek ezagutzatik erabilerarako pausoa ematea (ESEP 3.8)

Ekintzak

- a) *Berbalagun* egitasmoa indartu, eta *Gurasolagun* eta antzekoak sortu (xede taldeei egokitutako taldeak)
- b) Euskara ikasleek euskararen ezagutzatik erabilerarako urratsa emateko ekintzak antolatu herrian (horretarako, beharrezkoa da udalaren eta euskaltegien arteko elkarlan-gunea sortzea).

Eragileak

Euskara Zerbitzua, Euskaltegiak, Euskalgintza,

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) *Berbalagun* edo antzeko egitasmoen partaideen bilakaera
- b) Euskaltegiko ikasleen parte hartzearen bilakaera berariaz beraietzako antolatutako ekintzetan edo bestelako euskarazko ekintzetan

EUSKARAREN ERABILERA

IV. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA

Neurria: Enpresa munduan euskara erabiltzeari prestigioa ematea (ESEP 6.3.)

Ekintzak

- a) Enpresek euskara plana martxan jartzeko sustapen lana egin: Eusko Jaurlaritzaren LANHITZ diru-laguntzez gain, *Bai Euskarari* eta *Bikain* ziurtagirien berri eman enpresei, eta enpresak euskararen egoeraren diagnostikoa egitera animatu.
- b) Administrazioarekin lanean aritzeko baldintzetan herritarrei zerbitzua ematen dieten enpresentzako hizkuntza irizpideak ezarri eta horien jarraipena egin.

Eragileak

Euskara Zerbitzua, Kontratazio atala eta kontratuak egiten dituzten atal guztiak, Behargintza.

Garrantzia

Ertaina

Adierazleak

- | | | |
|--|--|--|
| a) Egindako bisita kopurua | | |
| a) Euskararen egoeraren diagnostikoa egin duten enpresa kopuruaren bilakaera | | |
| b) Herritarrei zerbitzua ematen dieten enpresek dituzten hizkuntza irizpideen betetze-mailaren bilakaera | | |

Neurria: Merkataritzan euskararen presentzia eta erabilera handitzea (ESEP 6.3.)

Ekintzak

- a) *Eidazu euskaraz* proiektua indartu: hitzarmenak sinatu merkatariekin.
- b) Merkatariei aholkularitza eta itzulpen zerbitzua ematen jarraitu.
- c) Euskarazko zerbitzua emateko gai diren saltokien mapa osatu eta zabaldu. Saltoki horiek promozionatu.
- d) Sentsibilizazio eta motibazio kanpainak antolatu: motibazio ekintzak, diskurtsoa lantzeko ekintzak...
- e) Merkatarien beharrezanean erantzuteko berariazko euskara ikastaroak antolatu.

Eragileak

Euskara Zerbitzua, Basauriko merkatarien elkarte

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- | | | |
|---|--|--|
| a) Adostutako hitzarmen kopuruaren bilakaera | | |
| c) Saltoki euskaldunen mapa eta hori promozionatzeko egin den ekintza kopurua | | |
| d) Sentsibilizazio eta motibazio ekintzen kopurua | | |

- e) Merkatariari zuzendutako euskara ikastaro berezietan parte hartu duen merkatari kopurua

V. AISIA - KULTURA

Neurria: Haur eta gazteentzako aisialdi eskaintza nagusiki euskaraz izatea (ESEP 7.1)

Ekintzak

- Udalak haur eta nerabeei zuzenduta antolatzen dituen ekintzak euskaraz izango direla bermatu: udalekuak, ludoketa, Zirt-Zart programa...
- Herriko elkarteek haur eta nerabeei zuzenduta antolatzen dituzten ekintzak nagusiki euskaraz izango direla bermatu, elkarteekin konpromisoak landuz (*Erdu euskereagaz* hitzarmengintza) eta ezarrita dauden hizkuntza irizpideen jarraipena eginez.
- Herriko elkarteek bere elkartearen euskararen egoeraren azterketa eta horren inguruko hausnarketa egin, euskara gehiago erabiltzeko zer egin dezaketen erabakitzeko (*Erdu euskereagaz* hitzarmengintza).
- Udalak antolatutako euskarazko kultur eskaintza indartu: zinema, antzerkia, musika, MAZ jaialdia...

Eragileak

Udala (Euskara Zerbitzua eta Kultura Saila), herriko elkarteak, ikastetxeak, guraso elkarteak, Sozial Antzokia.

Garrantzia

Altua

Adierazleak

- Udalak haur eta nerabeentzako antolatutako euskarazko ekintza kopuruaren bilakaera
- Herriko elkarteek haur eta nerabeentzako antolatutako euskarazko ekintza kopuruaren bilakaera
- Udalak antolatutako euskarazko kultur eskaintzaren bilakaera

Neurria: Euskarazko aisialdi eta kultur eskaintza ikusgarri eta erakargarri egitea (ESEP 7.1)

Ekintzak

- Euskarazko lehiaketak antolatu (herriko elkartei lehiaketak antolatzeko erraztasunak eman): ipuin erotikoen lehiaketa, kameratoia...
- Euskarazko kultur edo aisialdi ekintza gehiago antolatu kalean (euskarazko kultur eskaintza aretoetatik atera, ikusgarri egiteko): kale antzerkia, parkeetan ekintzak, uda garaian aire libreko zinea...

Eragileak

Udala (Euskara Zerbitzua eta Kultura Saila), herriko elkarteak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- | | | |
|---|--|--|
| a) Lehiaketa kopuruaren bilakaera.
Parte hartzaileen bilakaera | | |
| b) Klean antolatutako kultur eta aisialdi ekintzen bilakaera
Parte hartzaileen bilakaera | | |

Neurria: Aisialdiko begiraleak euskaraz egin dezaten trebatu eta kontzientziatu (ESEP 7.2)

Ekintzak

- a) Aisialdiko begiraleak euskara erabiltzeko kontzientziatu, formatu eta motibatu
- b) Begirale ikastaroa euskaraz egin dezaten pizgarriak eman: diru-laguntzak, praktikak egiteko aukera...

Eragileak

Udaleko Euskara Zerbitzua, herriko elkarteak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- | | | |
|--|--|--|
| a) Prestakuntza jaso duten begirale kopuruaren bilakaera | | |
| b) Begirale ikastaroa euskaraz egin dutenen bilakaera | | |

VI. AISIA – KIROLA

Neurria: Haur eta gazteen kirol jarduerak euskaldundu (ESEP 7.8)

Ekintzak

- a) Kirol elkarteekin hitzarmenak lantzen jarraitu euskararen erabilera indartzeko (*Erdu euskereagaz*)
- b) Kirol begiraleak/entrenatzaileak (euskaldunak) euskara erabiltzeko kontzientziatu, formatu eta motibatu (adibidez, asteburuko egonaldi baten bidez: talde dinamikak...)
- c) Kirol taldeen eta udalaren arteko komunikazioa indartu eta hobetu: euskara eta kirola uztartzen dituen informazioa jasotzeko gunea sortu eta taldeen eskura jarri.
- d) Hizkuntza irizpideen zabalkundea eta jarraipena egin.

Eragileak

Kirol elkarteak, Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzua

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- | | | |
|--|--|--|
| a) Kirol elkarteekin sinatutako hitzarmen kopuruaren bilakaera | | |
|--|--|--|

- b) Formazioa jaso duten kirol begirale/entrenatzaileen kopuruaren bilakaera
- c) Kirola eta euskara uztartzen dituen webgunea
- d) Hizkuntza irizpideen betetze maila

Neurria: BASAURI KIROLAK udal erakundeak antolatzen dituen kirol jardueretan euskarazko eskaintza indartu (ESEP 7.8)

Ekintzak

- a) Egungo egoeraren diagnostikoa egin: euskarazko eskaintza eta begiraleen euskara gaitasuna
- b) Euskarazko kirol eskaintza handitzeko hartutako neurriak
- c) Kirol ekintzetako begiraleak/entrenatzaileak (euskaldunak) euskara erabiltzeko kontzientziatu eta trebatu
- d) Euskarazko kirol eskaintza promozionatu: publizitatea, izen-ematerakoan jakinarazi...
- e) Basauri Kirolak erakundeak antolatutako ekintzetan euskararen presentzia handitu: musika, kartelak, agurrak...

Eragileak

Basauriko Kirolak erakundea, Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Diagnostikoaren emaitzak
 - b) Euskarazko kirol eskaintzaren bilakaera
 - c) Formazioa jaso duten begirale/entrenatzaile euskaldunen kopurua
 - d) Euskarazko ekintzetan parte hartzaileen bilakaera
-

VII. AISIA – GAZTEAK (12-18 eta 19-30 urte)

Neurria: Euskararen ahozko erabilera indartzeko ekimenak martxan jartzea (ESEP 7.1)

Ekintzak

- a) Gazteak eurak sortzaile izango diren ekimenak bultzatu: Kantatuning, kameratoia, euskararen ginkana (Topagunea)...
- b) Euskararen ahozko erabilera indartzeko programa planifikatuak martxan jarri: *Kuadrillategi, Eusle* metodologia...
- c) Lonjekin dinamikak antolatu: lonjen arteko lehiaketak, euskararen ginkana (Topagunea)...
- d) Herriko taldeekin elkarlanean gazteentzako euskarazko ekintzak antolatu

Eragileak

Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria Zerbitzua, gazteekin lan egiten duten herriko elkarteak, lonjak, Euskalgintza

Garrantzia

Handia

Adierazleak

Gazteen euskararen erabileraren bilakaera

- a) Antolatutako ekimen kopurua
Parte hartu duen gazte kopurua
- b) Antolatutako ekimen kopurua
Parte hartu duen gazte kopurua
- c) Lonjekin antolatutako dinamika kopurua
Parte hartu duen gazte kopurua
- d) Herriko elkarteekin elkarlanean antolatutako euskarazko ekintza kopurua
Parte hartu duen gazte kopurua

Neurria: Gazteentzako euskal erreferenteak identifikatzea eta ezagutzera ematea (ESEP 14.1)

Ekintzak

- a) Basauriko gazteentzat erreferenteak izan daitezkeen pertsona euskaldunak identifikatu
- b) Erreferente euskaldunak ezagutzera emateko ekintzak antolatu: foroak, elkarrizketak, hitzaldiak, kontzertuak, kirol ekintzak...

Eragileak

Udaleko Euskara eta Gazteria Zerbitzua, ikastetxeak, gazteekin lan egiten duten elkarteak

Garrantzia

Handia

Adierazleak

- a) Identifikatutako erreferente euskaldunen kopurua
- b) Erreferente euskaldunak ezagutarazteko antolatutako ekintza kopurua
Ekintza horietan parte hartu duen gazte kopurua

6 AGINTE PANELA

BASAURI: EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

EPEALDIA: 2018-2022

ERRONKA, Neurria ETA Ekintzak	Adierazlea	Arduraduna	Helburuen egoera			KRONOGRAMA				
			Hasierako egoera	Aurreikusitako egoera	Bukaerako egoera	2018	2019	2020	2021	2022
1. HIZKUNTZA TRANSMISIOA										
1.1. Hizkuntza kontzientzia landu gurasoekin (ESEP 1.1)	Etxeko hizkuntzen bilakaera D ereduko matrikulazio datuen bilakaera (HH, LH)		Etxeko erabilera: %2,9 euskaraz ; %6,6 bietara D eredua HHn eta LHn:							
1.1.1. Kanpainak egin: euskalduntzea bultzatu eta jarreran eragiteko (ama hizkuntzak errespetatzeko, haurrak D ereduan matrikulatzeko...).	Kanpaina eta ekimen kopurua.	Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak				x	x	x	x	x
1.1.2. Gurasoengan eragin ikastetxe eta guraso elkarten bidez, etxeko eta eskolaz kanpoko erabileraren garrantzia azpimarratzeko.	Kanpaina eta ekimen kopurua.	Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak				x	x	x	x	x
1.1.3. "Eman giltza" webgunearen zabalkundea egin ikastetxe eta gurasoen artean.	Webguneak izandako bisita kopurua Gal detegiaren bidez jasotako balorazioa	Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak				x	x	x	x	x

1.2. Familia barruan euskararen erabilera sustatu (ESEP 1.3)	Etxeko hizkuntzen bilakaera		Etxeko erabilera: %2,9 euskaraz ; %6,6 bietara								
1.2.1. Euskaraz bizi nahi duten familien sarea osatu eta bistaratu	Sarean dauden familia kopuruaren bilakaera.	Euskara Zerbitzua, Guraso elkarteak, ikastetxeak	0				x	x	x	x	
1.2.2. Gurasoek eta umeek elkarrekin euskaraz aritzeko programak eta ekintzak indartu: parkeetako egitasmoak, zinea euskaraz, Azalerako ipuinak, Irakurketa kluba, Olgetan ondo pasau...	Ekintza kopurua	Kultura Zerbitzua, ikastetxeak, liburutegiak,				x	x	x	x	x	
	Partaide kopuruaren bilakaera	Guraso elkarteak, AEK				x	x	x	x	x	
1.3. Guraso euskaldunen euskaraz hitz egiteko jariootasuna hobetu (ESEP 1.3)	Etxeko hizkuntzen bilakaera		Etxeko erabilera: %2,9 euskaraz ; %6,6 bietara								
1.3.1. Gurasolagun programa martxan jarri eta indartu	Gurasolagun edo Berbalagun egitasmoan parte hartzen duten guraso kopuruaren bilakaera	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak, guraso elkarteak eta ikastetxeak				x	x	x	x	x	
1.3.2. Guraso euskaldunak euskaraz hitz egiteko jariootasuna lantzeko ikastaro bereziak antolatu	Ikasle kopuruaren bilakaera	Euskara zerbitzua eta euskaltegiak	0				x	x	x	x	
2. IRAKASKUNTZA											

2.1. D ereduaren eskaintza eta matrikulazioa handitu, bereziki DBHtik gorako mailetan (ESEP 2.2)	D ereduaren bilakaera, bereziki DBHtik gorako mailetan		D eredua DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan						
2.1.1. Euskarazko ereduaren ikastearen abantailak azaltzeko kanpainak egin eta indartu, bereziki DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan (Basauriko pertsona erreferente eta ezagunen gomendioekin mezuak aberastu)	Kanpaina kopurua	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak eta Guraso elkarteak				X	X	X	X
2.2. Ikasleen ahozko hizkuntza-jarduna landu, euskara jarioraz hitz egiteko gaitasuna handitzeko (ESEP 2.3)	Ahozko hizkuntza-jarduna lantzeko proiektu kopurua								
2.2.1. Euskararen ahozko jarioraz lantzeko ikastetxeetan burutzen diren proiektuak eta jarduerak indartu eta areagotu (oraingo eskaintza zabaldu adin talde nagusiagoei, DBH 2. zikloa eta Batxilergoa, eta eskaintza berria sortu)	Ahozko hizkuntza-jarduna lantzeko proiektu kopurua					X	X	X	X
	DBHko 2. zikloa eta Batxilergoko ikasleetatik zenbaterik parte hartu duten ahozkoa lantzeko proiektuetan	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak	%0	%100			X	X	X
2.3. Euskararen erabilera handitu ikastetxeen eremuan (ESEP 2.4)	Eskola orduz kanpoko euskarazko eskaintza, eskaintza osoarekiko								
2.3.1. Ikastetxeetako eskola orduz kanpoko eskaintza aztertu eta eskaintza euskaraz izateko neurriak hartu: zerbitzuaren kontratazioan, barneko langileen euskalduntzea...	Eskola orduz kanpoko euskarazko eskaintza, eskaintza osoarekiko	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso elkarteak				X	X	X	X
3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA									

3.1. Euskara ikastea doakoa izateko urratsak eman (ESEP 3.2)	Euskara ikasteko diru-laguntzen bilakaera	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak									
3.1.1. Euskara ikastea doakoa izateko diru-laguntzak indartzea	Euskara ikasteko diru-laguntzen bilakaera	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak					X	X	X	X	
3.2. Euskaltegien eskaintza ESEPeke helburuak asetzeko beharretara egokitu (ESEP 3.7)	ESEPeke beharrak asetzeko sortutako ikastaro kopurua		0								
3.2.1. Udalaren eta euskaltegien arteko elkarlan gunea sortu	Elkarlan gunea	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak	%0	%100		X					
3.2.2. ESEPetik sortzen diren beharriaz erantzuteko euskara ikastaro bereziak antolatu	Ikastaro kopurua	Euskara Zerbitzua eta euskaltegiak	0			X	X	X	X	X	
	Ikasle kopurua		0			X	X	X	X	X	
3.3 Euskara ikasleek ezagutzatik erabilera pausoa eman (ESEP 3.8)	Euskara erabiltzeko egitasmoetan parte hartzen duten euskara ikasleen ehunekoaren bilakaera										
3.3.1. <i>Berbalagun</i> egitasmoa indartu, eta <i>Gurasolagun</i> eta antzeko taldeak sortu (xede taldeei egokitutako taldeak)	Partaide kopuruaren bilakaera	Euskara Zerbitzua, Euskaltegiak	79			X	X	X	X	X	
3.3.2 Euskara ikasleek euskararen ezagutzatik erabilerarako urratsa emateko ekintzak antolatu herrian	Ekintza kopurua Euskara ikasleen parte hartzearen bilakaera	Euskara Zerbitzua, Euskaltegiak				X	X	X	X	X	
4. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA											
4.1. Enpresa munduan euskara erabiltzeari prestigioa eman (ESEP 6.3)	Euskararen presentzia handitzeko urratsak eman dituzten enpresa kopuruaren bilakaera		0								
4.1.1. Enpresek euskara plana martxan jartzeko sustapen lana egin: Lanhitik diru-laguntzez gain, Bai Euskarari eta Bikain ziurtagirien berri eman enpresei, eta enpresak euskararen egoeraren diagnostikoa egitera animatu.	Egindako bisita kopurua	Euskara Zerbitzua	0				X	X			
	Euskararen egoeraren diagnostikoa egin duten enpresa kopurua		0						X	X	X

4.1.2. Administrazioarekin lanean aritzeko baldintzetan herritarrei zerbitzua ematen dieten enpresentzako hizkuntza irizpideak ezarri eta horien jarraipena egin.	Herritarrei zerbitzua ematen dieten enpresek dituzten hizkuntza irizpideen betetze-mailaren bilakaera	Kontratazio atala eta kontratuak egiten dituzten atal guztiak,					X	X	X	X
4.2. Merkataritzan euskararen presentzia eta erabilera handitu (ESEP 6.3)	Adostutako hitzarmen kopuruaren bilakaera									
4.2.1. <i>Eidazu euskaraz</i> proiektua indartu: hitzarmenak sinatu merkatariekin	Adostutako hitzarmen kopuruaren bilakaera	Basauriko merkatarien elkarte								
4.2.2. Merkatariei aholkularitza eta itzulpen zerbitzua ematen jarraitu	Aholkularitza eta itzulpen kopuruaren bilakaera	Basauriko merkatarien elkarte				X	X	X	X	X
4.2.3. Euskarazko zerbitzua emateko gai diren saltokien mapa osatu eta zabaldu. Saltoki horiek promozionatu	Saltoki euskaldunen mapa eta hori promozionatzeko egin den ekintza kopurua	Basauriko merkatarien elkarte	0				X	X		
4.2.4. Sentsibilizazio eta motibazio kanpainak antolatu: motibazio ekintzak, diskurtsoa lantzeko ekintzak...	Sentsibilizazio eta motibazio ekintzen kopurua	Basauriko merkatarien elkarte	0				X	X	X	X
4.2.5. Merkatarien beharrezanean erantzuteko berariazko euskara ikastaroak antolatu	Merkatariei zuzendutako ikastaroetan parte hartu duen merkatarikopurua	Basauriko merkatarien elkarte,	0							
5. AISIA-KULTURA										
5.1. Haur eta gazteentzako aisialdi eskaintza nagusiki euskaraz izan (ESEP 7.1)	Haur eta gazteentzako aisialdi euskarazko aisialdi eskaintzaren ehunekoa									
5.1.1. Udalak haur eta nerabeei zuzenduta antolatzen dituen ekintzak euskaraz izango direla bermatu: udalekuak, Ludoketa, Zirt-Zart programa...	Udalak haur eta nerabeentzako antolatutako euskarazko ekintza kopuruaren bilakaera	Udaleko Euskara Zerbitzua eta Kultura saila					X	X	X	X

5.1.2. Herriko elkarteek haur eta nerabeei zuzenduta antolatzen dituzten ekintzak nagusiki euskaraz izango direla bermatu, elkarteekin konpromisoak landuz (<i>Erdu euskereagaz</i> hitzarmengintza) eta ezarrita dauden hizkuntza irizpideen jarraipena eginez	Herriko elkarteek haur eta nerabeentzako antolatutako euskarazko ekintza kopuruaren bilakaera	Euskara Zerbitzua, Kultura saila eta herriko elkarteak					X	X	X	X	X
5.1.3. Herriko elkarteek bere elkartearen euskararen egoeraren azterketa eta horren inguruko hausnarketa egin, euskara gehiago erabiltzeko zer egin dezaketen erabakitzeko (<i>Erdu euskereagaz</i> hitzarmengintza)	Euskararen egoeraren diagnostikoa egin eta konpromisoak hartu dituzten elkarten kopurua	Euskara Zerbitzua eta herriko elkarteak	0					X	X	X	X
5.1.4. Udalak antolatutako euskarazko kultur eskaintza indartu: zinema, antzerkia, musika, MAZ jaialdia...	Udalak antolatutako euskarazko kultur eskaintzaren bilakaera	Euskara Zerbitzua, Kultura Saila, Sozial Antzokia						X	X	X	X
5.2. Euskarazko aisialdi eta kultur eskaintza ikusgarri eta erakargarri egin (ESEP 7.1)	Kalean antolatutako kultur eta aisialdi ekintzen bilakaera										
5.2.1. Euskarazko lehiaketak antolatu (herriko elkartei lehiaketak antolatzeko erraztasunak eman): ipuin erotikoen lehiaketa, kameratoia...	Lehiaketa kopuruaren bilakaera. Parte hartzaileen bilakaera	Euskara Zerbitzua eta Kultura saila, herriko elkarteak						X	X	X	X
5.2.2. Euskarazko kultur edo aisialdi ekintza gehiago antolatu kalean (euskarazko kultur eskaintza aretoetatik atera, ikusgarri egiteko): kale antzerkia, parkeetan ekintzak, uda garaian aire libreko zinea...	Kalean antolatutako kultur eta aisialdi ekintzen bilakaera Parte hartzaileen bilakaera	Euskara Zerbitzua eta Kultura saila, herriko elkarteak				X	X	X	X	X	X
5.3. Aisialdiko begiraleak euskaraz egin dezaten trebatu eta kontzientziatu (ESEP 7.2)	Euskara erabiltzeko formazioa jaso duten begirale kopuruaren bilakaera										
5.3.1. Aisialdiko begiraleak euskara erabiltzeko kontzientziatu, formatu eta motibatu	Prestakuntza jaso duten begirale kopuruaren bilakaera	Euskara Zerbitzua, herriko elkarteak						X	X	X	X
5.3.2. Begirale ikastaroa euskaraz egin dezaten pizgarriak eman: diru-laguntzak, praktikak egiteko aukera...	Begirale ikastaroa euskaraz egin dutenen bilakaera	Euskara zerbitzua, herriko elkarteak				X	X	X	X	X	X

6. AISIA-KIROLA											
6.1. Haur eta gazteen kirol jarduerak euskaldundu (ESEP 7.8)	Euskaraz eskaintzen diren kirol jardueren ehunekoa										
6.1.1. Kirol elkarteekin hitzarmenak lantzen jarraitu euskararen erabilera indartzeko (Erdi euskereagaz)	Kirol elkarteekin sinatutako hitzarmen kopuruaren bilakaera	Kirol elkarteak, Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzua						X	X	X	X
6.1.2. Kirol begiraleak/entrenatzaileak (euskaldunak) euskara erabiltzeko kontzientziatu, formatu eta motibatu (adibidez, asteburuko egonaldi baten bidez: talde dinamikak...)	Formazioa jaso duten kirol begirale/entrenatzaileen kopuruaren bilakaera	Kirol elkarteak, Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzua				X	X	X	X	X	
6.1.3. Kirol taldeen eta udalaren arteko komunikazioa indartu eta hobetu: euskara eta kirola uztartzen dituen informazioa jasotzeko gunea sortu eta taldeen eskura jarri.	Kirola eta euskara uztartzen dituen webgunea	Kirol elkarteak, Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzua	%0	%100				X			
6.1.4. Hizkuntza irizpideen zabalkundea eta jarraipena egin.	Hizkuntza irizpideen betetze maila	Kirol elkarteak, Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzua				X	X	X	X	X	
6.2. BASAURI KIROLAK udal erakundeak antolatzen dituen kirol jardueretan euskarazko eskaintza indartu (ESEP 7.8)	Euskaraz eskaintzen diren kirol jardueren ehunekoa										
6.2.1. Egungo egoeraren diagnostikoa egin: euskarazko eskaintza eta begiraleen euskara gaitasuna	Diagnostikoaren emaitzak	Basauri Kirolak eta Euskara Zerbitzua						X	X		
6.2.2. Euskarazko kirol eskaintza handitzeko neurriak hartu	Euskarazko kirol eskaintzaren bilakaera	eta Euskara Zerbitzua							X	X	
6.2.3. Kirol ekintzetako begiraleak/entrenatzaileak (euskaldunak) euskara erabiltzeko kontzientziatu eta trebatu	Formazioa jaso duten begirale/entrenatzaileen kopuruaren bilakaera	Basauri Kirolak, Euskara Zerbitzua, euskaltegiak	%0	%100				X	X	X	X
6.2.4. Euskarazko kirol eskaintza promozionatu: publizitatea, izen-ematerakoan jakinarazi...	Euskarazko ekintzetan parte hartzaileen bilakaera	eta Euskara Zerbitzua						X	X	X	X
6.2.5. Basauri Kirolak erakundeak antolatutako ekintzetan euskararen presentzia handitu: musika, kartelak, agurrak...	Euskarazko kirol eskaintzaren bilakaera	Basauri Kirolak eta Euskara Zerbitzua						X	X	X	X

7. GAZTEAK										
7.1. Euskararen ahozko erabilera indartzeko ekimenak martxan jarri (ESEP 7.1)	Gazteen euskararen erabilera		%7							
7.1.1. Gazteak eurak sortzaile izango diren ekimenak bultzatu: Kantatuning, kameratoia, euskararen ginkana (Topagunea)...	Antolatutako ekimen kopurua Parte hartu duen gazte kopurua	Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria Zerbitzua, gazteekin lan egiten duten					X	X	X	X
7.1.2. Euskararen ahozko erabilera indartzeko programa planifikatuak martxan jarri: Kuadrillategi, Eusle metodologia...	Antolatutako ekimen kopurua Parte hartu duen gazte kopurua	Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria Zerbitzua, gazteekin lan egiten duten					X	X	X	X
7.1.3. Lonjekin dinamikak antolatu: Lonjen arteko lehiaketak, euskararen ginkana (Topagunea)...	Lonjekin antolatutako dinamika kopurua Parte hartu duen gazte kopurua	Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria Zerbitzua, gazteekin lan egiten duten					X	X	X	X
7.1.4. Herriko taldeekin elkarlanean gazteentzako euskarazko ekintzak antolatu	Herriko elkarteekin elkarlanean antolatutako euskarazko ekintza kopurua Parte hartu duen gazte kopurua	Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria Zerbitzua, gazteekin lan egiten duten herriko elkarteak,					X	X	X	X
7.2. Gazteentzako euskal erreferenteak identifikatu eta ezagutzera eman (ESEP 14.1)	Erreferente euskaldunak ezagutarazteko antolatutako ekintza kopurua									

7.2.1. Basauriko gazteentzat erreferenteak izan daitezkeen pertsona euskaldunak identifikatu	Identifikatutako erreferente euskaldunen kopurua	Gazteria Zerbitzua, ikastetxeak, gazteekin lan Euskara eta				X			
7.2.2. Erreferente euskaldunak ezagutzera emateko ekintzak antolatu: foroak, elkarrizketak, hitzaldiak, kontzertuak, kirol ekintzak...	Erreferente euskaldunak ezagutarazteko antolatutako ekintza kopurua Ekintza horietan parte hartu duen gazte kopurua	Gazteria Zerbitzua, ikastetxeak, gazteekin lan egiten duten			X	X	X	X	X

7 PLANAREN EGITURA ETA JARRAIPENA

Planaren jarraipena eta ebaluazioa dela eta, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko proposatzen dira txosten honetan zehaztutako adierazleak.

Euskararen Aholku Batzordeak eta Basauriko Udalak urtez urteko plana onartzen duenean, adierazle horiek landu, doitu eta egokitu beharko ditu dauzkan baliabideen arabera.

Planean zenbait ekintzak proposatzen dira, hala ere, hau ez da proposamen itxia, ez eta aldaezina ere. Egoeraren eta unearen arabera ekintzak egokitu beharko dira, berriak gehituz edo daudenen egitekoa berraztertuz.

Horrez gain, plan estrategikoaren urtez urteko kudeaketa plana egiteko, plana bera gauzatu, baliabideak esleitu eta jarraipena egiteko orain arte martxan egon den Euskararen Aholku Batzordearen egitura eta funtzioak berraztertzea, eta txosten honetan zehaztu diren esparru bakoitzaren helburuak eta ekintzak gauzatzeko lan-taldeak sortzea proposatzen dugu.

Gune nagusia **Euskararen Aholku Batzordea** izango da, eta ondorengo egitura izatea proposatzen dugu:

EGITURA

Euskararen Aholku Batzordean Udaleko Euskara Zerbitzuak, ESEPeke esparruak lantzeko sortutako lantaldeetako ordezkariak eta euskalgintzako ordezkariak hartuko dute parte. Hauxe izango litzateke osaera:

- Basauriko Udaleko Euskara Zerbitzua (gaiaren arabera arloari dagokion zerbitzu arduraduna joango litzateke bileretara).
- Familia transmisioaren lantaldeko ordezkaria
- Irakaskuntzaren lantaldeko ordezkaria
- Euskalduntze-alfabetatze lantaldeko ordezkaria
- Aisialdi eta kultura lantaldeko ordezkaria
- Kirolaren lantaldeko ordezkaria
- Arlo sozio-ekonomikoaren lantaldeko ordezkaria.
- Gazteen lantaldeko ordezkaria
- Euskalgintzako ordezkaria

Aurrez esan bezala, esparru bakoitzeko neurriak eta ekintza plana aurrera eramateko, lan esparru bakoitzeko **lantaldeak** sortzea sustatuko da.

Jarraian sortzea proposatzen diren esparrukako 7 lantaldeak:

- Familia transmisioan eragiteko lantaldea
- Irakaskuntzan eragiteko lantaldea
- Aisialdian eragiteko lantaldea
- Kirol esparruan eragiteko lantaldea
- Helduen euskalduntze-alfabetatzean eragiteko lantaldea
- Arlo sozioekonomikoan eragiteko lantaldea
- Gazteen esparruan eragiteko lantaldea

FUNTZIOAK

Euskararen Aholku Batzordea

- Euskararen Aholku Batzordearen zeregina izango da datozen urteetan garatuko den planari oniritzia ematea, eta adostutako esparruetako eragileei plana aurkeztea eta lantaldeak sortzea.
- Basaurin euskararen erabilera normalizatzeko dauden baliabideak ezagutzea eta horren arabera erabakiak hartzea (esparru bakoitzaren garrantziaren eta proposatutako helburu eta ekintzen arabera esparru bakoitzerako baliabideak esleitzea).
- Lantaldeek urtez urte egiten dituzten proposamenak aztertzea, onartzea eta jarraipena egitea.
- Datozen urteetan garatuko den plangintzaren urteko helburu, ekintza eta neurrien jarraipena egitea.
- Horrez gain, euskararen normalizazioaren inguruan Basaurin sor daitezkeen bestelako gaiak ere aztertuko ditu.

Esparrukako lantaldeak

- Esparrukako lantaldeak urtero garatu beharreko ekintzak proposatuko dituzte eta horiek inplementatzen lagunduko dute.
- Esparru bakoitzeko ordezkari batek Euskararen Aholku Batzordean parte hartuko du.

MAIZTASUNA

- Euskararen Aholku Batzordean, urtean ohiko hiru bilera egingo dira. Hala ere, beharrezkoa den guztietan egingo dira ezohiko bilerak. Bilera guztien aurretik, partaide guztiei bidaliko zaie deialdia eta gai-ordena, 8 egun lehenago gutxienez. Bilera guztien ostean, berriz, akta bidali egingo zaie parte-hartzaile guztiei, gehienez, 15 eguneko epean.
- Lantaldeek beharraren arabera egingo dituzte bilerak.

8 ERANSKINAK

- **1. saioko aurkezpena:** Basauriko hainbat datu soziolinguistiko eta 2014-2017 epealdian egindako hainbat ekintzaren laburpena.



1.SAIOA_AURKEZPE
NA_Basauri.pdf

- **1. saioko emaitzak:** azken lau urteetan egindakoaren balorazioa.



1.SAIOA_EMATZAK
_Basauri.pdf

- **2. saioko emaitzak:** datozen urteetarako erronkak eta helburuak



2.SAIOA_EMATZAK
_Basauri.pdf